


ANIMA: FUNTSEZKO JARDUERAK



- Zein dira egin behar ditugun gauzarik garrantzitsuenak gure proiektuak funtziona dezan?

Gure proiektuak funtziona dezan, ezinbestekoa izango da informazioa ahalik eta fidagarriena izatea, bezeroek guregan konfidantza izan dezaten eta gure aplikazioa erabiltzen jarrai dezaten (horretarako ingurumenarekiko kontzientzia handia duten jendearekin eta elkarteekin arituko gara lanean, eta informazioa zuzenean enpresengandik saiatuko gara lortzen).

Gainera, aplikazioa erabilterraza izatea ere oso garrantzitsua izango da, horrela pertsona gehiagok erabiltzea lortuko baitugu.

Bi faktore hauek izango dira gure proiektuaren balio proposamenaren garrantzitsuenak.

Hain garrantzitsua ez bada ere, aurrerago azaldu dugun bezala, bezeroei gurekin komunikatzeko bide errazak eskainiko dizkiegu, eta beraien iritziak beti kontuan izaten saiatuko gara, enpresa eta bezeroaren artean ahalik eta erelazio onena egon dadin.

Bigarren maila baten ere koka dezakegu sare sozialetan eta interneten erregulartasuna izatea, bezeroak gu kontutan izan gaituzten.

- Funtsezko jarduerak

→ EKOIZPENA: Gure kasuan ez dugu produktu zehatz bat ekoitzi behar, baina ekoizpen arloarekin lotu dezakegu aplikazioan eskainiko dugun informazioaren bilatzea, egiaztatzea eta aplikazioan eskuragarri jartzea, azken finean hori baita eskainiko dugun 'produktua', fisikoa ez bada ere.

→ **ARAZOAK KONPONTZEA:** Gure proiektuaren kasuan, arazoak aplikazioaren funtzionamenduari eta bertan eskaintzen den informazioarekin lotuta egongo dira.

Agian aplikazioko funtzio jakin batek ez du behar bezala funtzionatuko, edo eskaintzen dugun informazioa egiazkoa ez da izango. Hauei soluzio bat topatzeko gure informazio iturriekin harremanetan jarri beharko gara eta egin dugun ikerketen emaitzak berrikusi beharko ditugu, eta aplikazioko arazoak konpontzeko gure teknikariak lanean jarri beharko lirateke

→ **PLATAFORMA EDO SAREKO JARDUERAK:**

Aurrerago aipatu dugun bezala, aplikazioaren sare sozialak eta web orri bat zabalduko ditugu, eta bertan erregulariki egingo ditugu 'post'-ak, gure jarraitzaileak jarraitzen gaituztela ahaztu ez dezaten, eta informazio baliagarria eskaintzen dugula sentitu dezaten, ingurumenaren eta kutsaduraren inguruko edukiz beteko baititugu. Gainera sare sozial hauen bidez gure jarraitzaileak gurekin kontaktatu ahalko dute, eta baita posta elektronikoko baten bidez.